

4.º *Aita zenak irakatsi zonbait; laborantza eta artzankari buruz*

Jondane Marthine oillarra: *Upupa* epops, La huppe (Bazkoz aurthen bat Suberoan ikusi dut)

bedokia: «*labakia* larre, iraztorra, otatze baten ondotik egiten den alhorra da; aldiz *bedokia* sorho bat, belhardi baten ondoti egiten dena

ahabia: myrtille ou airelle, *Vaccinium myrtillus*, Arándano

arluia: salamandre, salamandra, *Salamandra salamandra*, norbait igitu gabe eta ikusi gabe zuri so egoiten denean erraiten diogu: «zer duk eni arluir bezala sogiteko»

ûgatza: gerfaut, *Falco rusticolus*, A. Lhandek Saixuriarekin nahasten du Sai xuria: gypaête barbu, *Gypaetus barbatus* baita Aita zenaren arabera: «ûgatza hegasti igaraile bat da, bortian agitzen bada, arresaren bürbezürra aztaparretan hartuko dü eta hegaltatüko. Botxü baten eretzera heltü baiko bürhezürra botxila erortea uzten dü. Buria lurrila heltzian lehertzen da eta ûgatzak bere bürria batetan erortea utzirik doi heltzen da, bür-hünaren jateko, bürü lehertian» (J. P.)

anbüratia: luxé, luxacion, ardiez jardutean; jendentzat «*zainützültze*»

azartekua: fourchet, ardien atzarteko gaitza

Bedajo: coccidiose printanière, maiz hitz hori *meteorisation* gaizki itzulia da. Bedajotik ez da sendotzen, ote mardulak ematen omen du ardieri eritasuna

Hantzia: meteorisation, ihitzarekin belar bustian alatuz ardiari sabela hantzen zaio, orratz lodi batekin zulatuz, deshantzen da eta sendotzen

Brixtua: Bizkarratetik landa sortzen den lehen ilhea, ardiari

Befoak: Beko ezpainak luzeago daukan ardia

Ezpalak: grandes attelles pour luxacion, tablillas de luxación

Larra: grand banc de bois utilisé aussi pour monter dans le bas flanc; banco de cinco metros de largo, permitiendo el acceso al «atze»

Larrarte: pièce principale de la cabane de berges où se trouve le foyer; habitación y hogar de los pastores, separada en la choza de *gantzantegia* por un medio tabique: *tirantia* (J. P.)

Lumiak: mucosités, qui s'écoulent de la vulve d'une brebis en chaleur; mucosidad que sale de la vulva de una oveja en celo (?); «ardia prestik denian arkhara dela erraiten da, naturak gorriago dira eta lümiak bustatzen die (J.P.)»

Oitza: colostrum, colostro, primera leche que sale al fin de la gestación

Osatzea: castration par torsion et dégénérescence à l'âge d'un an; castración torciendo y dejando degenerar a la edad de un año

Pailletinatzia: ecartement et retournement des cornes; separación, apartación de las cuernas y revuelta atrás

Olha bareeia: ezta repos du berger, bainan artzaine olharen barreatzea bakoitza etxera sartzen direlarik *errasatzia*, kontuen garbitzea egin ondoren

Tirantia: medio tabique, semi-cloison

Ttalakak: Ustarrozen erabiltzen zituzten tzintzarri bardinak

Txotxak: attelles pour fractures, tablillas para fracturas

Xikiratzea: castrer par arrachage à 2 mois, les moutons; castrar arrancando los carneros a los dos meses

Tzasko bat: Tzasko bat gibeletik eman

Etxegaraia: les près au dessus de la maison, prados detrás de la casa y dominándola

Etxapia: tierra bajando desde la casa; pré descendant depuis la maison

Izeidia: cuiller servant à faire des sabots; cuchara metálica sirviendo para cavar los zuecos

Kukumara: noix de galle, agalla.

Azken urteetan agertu hitzak

Espartiña herrestak: pantoufle, pantuflos

Zamariak: motore baten «zaldiak»

Aho zabalak: haut-parleurs, altavoces

Sü bidea: treina, kantuetan bakarrik

Josteko bekanika: machine à coudre, máquina de coser

Daillüsa: faucheuse, segadora mecánica

Traktüra: tracteur, tractor

Motüra: moteur, motor

Botütégia: garage individuel, garage personal

Plomiak jauzi: le fusible a fondu

*Hitz zabarrak Lhanden eztirenak edo ez osoki*

Eliza mithil: bedeau, pertiguero

Herriko mithila: garde-champetre, serenoaren gisa eta merkatuan, mezatik kanporatzean herriak agintzen dituenak «oihustatzen» dituenak, ber denboran nor nahik auzoeri laborantzaren gaineko berri bat jakinazten áhal du; herrian eginen pesta edo batzarre bati buruzko berriak emaiten ditu.

Kükümaroak: Lhandek (N) letrarekin nafar gisa emaiten du bainan gazte gaztean aitaren etxondoan Suberoan kukumaro, gazna ta orhez egin opilari, erraiten genion. Txoina, Lhandek txoin emaiten du, pain blanc bezala, bainan beti «a» rekin erraiten da, ad: bi kilotako txoina bat. Txoin frantsesezko «choine» edo pain de chanoine, kanoniku ogia da, ogi kanonikua ez baldin bada

Hor-uzkia: cul de chien, culo de perro, lanik gabe gelditzen zen artzaina lagun asko zenean

Artzan nausia: ardiak jeisten eta zaintzen zuen artzaina, artzan mitila lagun

Etxekanderea ta neskatoa: gazna egiten eta egiten laguntzen zuten artzainak

Me(r)a: maire, alcalde

Depütatü: député, diputado

Abokatü: avocat, abogado.

Txomin Peillen

## GIBELKA ERATORRI HITZ BATZUEZ

Orok dakiguna, eskuarak (bertze mintzaire gehienek bezala) hitz berriak molda ditzazke hitz zahar bati atzizkiak edo bertze hitz batzu josiz. Horrela argi-tik sortu dira argitu, argitsu, argibide, argizagi, argi-mutil, eta bertze holako asko hitz eratorri.